

## GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak Aralarko Aingeruari harrera egin dio

*Ospakizun tradizionala egin da gaur goizean Nafarroako Jauregian irudiaren urteroko bisita dela eta*

Martes, 17 de abril de 2012

Nafarroako Gobernuak Aralarko Aingeruari harrera egin dio gaur goizean bisita honetan tradizionalki egiten den ospakizunarekin. Zeremonia hori, Excelsisko San Migelko irudiak Pazko Egunaren ondorengo astean Iruñeko hainbat erakunde, ikastetxe, parrokia eta beste erakunde batzuetan egiten duen ibilbidearen barnean sartzen da.



Nafarroako Gobernua Aralarko Aingeruari harrera egiten, Barcina Lehendakaria buru dela.

Irudia 11:00etan heldu da Nafarroako Jauregiaren ate nagusira Aralarko santutegiko kapilau Mikel Garciandia Goñi-ren eskutik. Leku horretan Foru Gobernuako kideak zain zeuden, Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina Angulo buru zela, eta baita ehun bat lagun ere, gehienak Nafarroako Gobernuako funtzionarioak.

Harreraren ondoren, prozesio-desfile bat egin da ospakizunetan ohikoa den segizioarekin, hau da, armen erregearekin, mazolariekin eta kandelak eramaten dituzten alguaziltxo zuzi-eramaileekin. Segizioak Solairu Noblearen eta Tronuaren Aretoko korridoreak pasa ditu, kaperara iritsi arte; bertan Iruñeko San Nikolas elizako parroko Santiago Cañardo Ramírez-ek eukaristia ospatu du.

Sermoian, Cañardo-k Vatikanoko II. Kontzilioaren ideietako bat azpimarratu du; haren arabera, "erabat gizatiarra den politika batera heltzeko modu egokiena justizia, borondate ona eta guztion onurako zerbitzuaren barneko zentzua sustatzea da". Arrazoi hori dela eta, Aralarko Irudiari eskatu dio Nafarroako Gobernuak kideei

"espiritu hori eman diezaiela" eta, horrenbestez, "desadostasuna, norberekeria eta indarkeria"-ri irabaztea.

### **Erlikiari gurtza eta azken ekitaldia**

Erljio-ospakizunaren amaieran, bertaratutakoek San Migelgo irudia daraman "lignum crucis"-en erlikia gurtu dute, eta prozesioan jarraitu dute jauregiaren ateraino; azken ekitaldia egin da bertan, bertaratutakoak eta Nafarroa guztia bedeinkatuz.

Ospakizunaren musika-zatiaz Iruñeko Katedraleko Musika Kapera arduratu da (abesbatza murriztua), Aurelio Sagaseta Ariztegui maisuaren zuzendaritzapean. Gainera, Nafarroako Jauregira heltzean eta irteeran, Mariano Morán maisuak zuzendutako Nafarroako Gobernuaren Tronpeten eta Tinbalen Bandak Nafarroako Ereserkia interpretatu du.

Aralarko Aingeruaren irudiari, Excelsisko San Migelgo santutegian gurtzen dena, Nafarroako Jauregian harrera egin diote XX. mendeko lehen urteetan hasitako ohiturari jarraiki.



Prozesioaren une bat Nafarroako Jauregiko eskailera dotoreetan.